

# ataria

Ikatzne



## Literatura, haurrek euskara bere sentitzeko

**Musika**  
*Juantxo Zeberio tolosarrak 'Xomorroak'*  
*proiektua eta izen bereko diskoa aurkeztuko*  
*ditu, gaur, Leidor aretoan*

2019-05-31  
1.067 zenbakia  
107.6 fm  
[www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

Hemen zure  
iragarkia joan  
daiteke

publi@ataria.eus

661 678 818



sariduna

Atarikideentzat 2 afari txartel ditugu

**BISIGUAREN FESTAKO AFARIRAKO**  
2 sarrera zozketatzen ditugu

- Bakarne Otegi (Ikaztegieta)

Ekainaren 1ean,  
21:00etan, Tolosako Zerkausian.

Ataria jarriko da harremanetan



harpidedun izateak badu saria  
saridunak

**1 TXINDOKIKO ITZALA** Abentura Parkea

Bi lagunentzako bina sarrera

www.txindokikoitzala.com/eu/  
info@txindokikoitzala.com  
628 947 253 | 943 654 757  
ABALTZISKETA

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.

- Itziar Arana (Tolosa)
- Amaia Egizabal (Villabona)



**2 OSIN MASAJE ETA ESTETIKA ZENTRUA**

Masajea

609447090  
665754930  
Hozpel kalea  
ANOETA

- Izaskun Jauregi  
(Anoeta)



**3 EKAINBERRI museoa: Kobazuloak +  
esperientziak** Bi lagunentzako sarrera bikoitza

www.ekainberri.com  
ZESTOA  
943 868811  
info@ekainberri.com

- Laida Agirre (Tolosa)
- Itziar Baro (Tolosa)



Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu ordua hartzeko.

**4 ENARAK ITZULI**  
**DIRA** liburua eta diska

Gari Berasaluze eta Sergio  
Ruiz G. Txabarri 'Serge'

- Rafael Leunda (Tolosa)

booktegi.eus



Ataria jarriko da harremanetan oparia jasotzeko.

# Ikusezinak

**N**onahi daude, noiznahi, nornahi izan daiteke beraietako bat. Lanera joan aurretik kafea hartzera zoazenean, adibidez, pentsa ezazu, zu iritsi aurretik bera han izan dela. Autobusera edo trenera sartzean ere, beste hainbeste. Lantokian, jate-txean, parkean, ospitalean, postetxean, kallean, ertzain etxean, harategian, udaletxean, elkarteetan, liburutegian, botikan... Toki horietan guztietan egon da zure aurretik, edo, agian, zurekin batera dago, eta ez duzu ikusten. Edo, gerta daiteke, zure etxean bertan egotea ere.

Daudenean ikusezinak dira; ez daudenean, ordea, orduan bai, orduan hasten gara euren gabezia usaintzen, ikusten, ukitzen. Garbitzaileak ezinbestekoak dira gaur egungo gorpil zoro honek behar bezala bira eman dezan. Enplegatu hauen erratzak, trapuak, zapiak eta askotariko espriak enpresako makina eta ordenagailuak bezain garrantzitsuak dira. Euren lana nahitaezkoa da, gainerako beharginen euren egitekoa behar bezala burutu dezaten. Enpresako nagusiak, atezainak, administrariak, mekanikariak, sukaldariak, kazetariak, kirurgilariak... Denek behar dute garbitzaileak bere lana behar bezala egitea, prestutasunez eta duintasunez.

**Duintasuna eta justizia, horixe bera eskatzeko, zortzi hilabete baino gehiago daramatzate greban, epaitegietako eta ertzain etxeetako garbitzaileak**



**EDURNE AYUSO**  
KOMUNIKATZAILEA

Duintasuna eta justizia, horixe bera eskatzeko, zortzi hilabete baino gehiago daramatzate greban, Gipuzkoako epaitegietako eta ertzain etxeetako garbitzaileak. Ikusezinak dira, ikusezinen artean ikusgaitzenak. Kale-garbitzaileen aldean jasaten duten soldata arrakala ezabatzea nahi dute. Izan ere, eraikin judizialtako beharginen kaleko garbitzaileak baino %7 gutxiago irabazten dute, eta polizia etxeetakoek %13 gutxiago. Esan gabe doa, grebalarien gehiengoak emakumeak direla. Bada, azken zortzi hilabete hauetan, egunero-egunero protestan ari diren pertsona hauek guztiak ikusgaitz bihurtu dira, jaur-laritzaren Justizia Sailarentzat.

Azkeneko hamar urteetan soldata bera jaso dute eta, egoera horren aurrean, planto egin dute. Berrehun eta berrogei egun baino gehiago daramatzate euren lantokietara joan gabe, baina, euren esku-bideen alde etengabe lanean, gaur hemen eta bihar han, pankartaren atzean. Ia haurdunaldi batek adina, euren buruari zer gertatuko den galdetuz; zortzi hilabete baino gehiago, lorik egin ezinda, barrenak jaten... Urtaroak ba-doa, eta grebalariek aurrera egin beste erremediorik ez dute. Aurrera, adorez eta tinko.

Zaborrak pilatzen ari dira, zikina zikinaren gainean; hautsak hautsa dakar. Zentzunak ikusi nahi ez duena sudurrak antzematen du, kiratsa begi-bistakoa bihurtu da komisaldegi eta auzitegietan. Justizia begiak zapi batez estalita dituen emakume baten gisa irudikatu izan da; zapi begietatik sudur parera jaitsi da. Bada, ea begiak irekitzen dituen eta ikusezinak ikusten dituen. Animo Garbaldiko langileoi, eutsi!

**ARGITARATZAILEA:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez  
**KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus  
**POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldezkatian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:**



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

**TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:**

**Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Aitzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:  
**Eneritz Maiz Etxarri**



# Gure Zirkua berriro heldu da

Iaz lortutako arrakastari segida eman nahian, euskara hutseko ikuskizunak sei hilabeteko bira berri bati ekin zion maiatzean

**Josu Artutxa Dorronsoro**

**B**ada kantu bat, iaz Euskal Herriko herri askotan entzun ahal izan zena: «Gure zirkua, gure zirkua, gure zirkua heldu da». Aurrez, Tolosan ekin zioten, Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktoreek, gisa horretako funtzio artistiko bat sortzeari. Hasierako proiektu hartara, lagunak eta familia-ko kideak gehitu ziren, gero. «Esperientzia nolakoa izango zen ikustea nahi genuen, baina jakitun ginen bertatik ezin genuela atera, gurpilak ez genituelako», dio Galartzak. Baina, atera ziren, eta bai ongi atera ere. «Ez genekien zenbat iraungo genuen». Iaz, lau hilabeteko bira egitea lortu zuten eta, aurten, konfiantza handiagoarekin eta burua hobeto kokatuta, luzeago bat egitea aurreikusituta. «Indar eta ilusio handiarekin gaude».

Lau hilabete, 12 herri, 97 emanaldi eta 25.000 ikusle. Horiek izan ziren iazko datuak. «Dudarik gabe, ikaragarria izan zen. Hala ere, guretzako erakargarriagoa da, oraindik martxan jarraitzea. Talde berari eutsiz, aurrera jarraitzeko gai izatea da erronka». Iaz, egindako akatsetatik ikasitakoarekin, emanaldiak biribiltzea dute helburu. «Bakoitzak berea hobetu behar du, goranzko prozesu bat egiteko».

Trapezistek, magoak, malabaristak, musikariek, dantzariak eta akrobatek osatzen dute taldea. Astebururo sei bat emanaldi eskaintzen dituzte; ostegunean hasi eta asteburu osoan luzatzen dira. Hala ere, emanaldietan ez ezik, muntaia lanetan ere aritzen direla azpimarratu du Galartzak, lan horiek beste batzuek egiten dituztela uste baitu jende askok. «Jendea harritu egiten da artistak lan ezberdinetan aritzen direla ikustean. Guk, gainera, lanak banatzen ikasi dugu». Ondorioz, auzolanean sortutako egitasmoa izan dela dio. «Askotan esan izan dut: farandula eta brikolaje mundua gustuko duenak, hauxe du leku aproposena».



Gure Zirkuak, Amezketan eskaini zituen lehen emanaldiak, iazko uztaian. **NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ**

## Apustu berrien bila

Ilusioz eta kolorez betetako bidaia moduko bat da Gure Zirkua. Askotan, ordea, zirku hitza haur eta gaztetxoekin lotzen da. «Asko insistitzen dut horretan eta, egia esan, asko pozten nau, esaterako, Euskaltegian ikasten duen talde batek, gure emanaldia ikustera etortzea erabakitzeak. Berdin gertatzen da kuadrilla helduekin edo bikoteekin. Arazoez ahaztu eta gozatzeko beste modu bat da».

Adinaz gain, hizkuntzaren hautua ere azpimarragarria da, euskara hutseko saioa baita. «Horri ez diogu aparte-ko garrantzirik ematen, euskaldunak garelako. Guretzako barregarria izango litzake beste hizkuntza batean aritzea». Aurtengo biran, ordea, euskara hain nabarmena ez den herrietara helduko direnez, garrantzi handiagoa izango du, euskaldunak ez diren herri-tarrak erakartzeko. «Zirkua bera abentura bat denez, horri eutsi behar zaio, apustu berriak eginez. Errazena Tolosa inguruan geratzea izango litzake, baina Gasteizera etorri garen bezala, Iruñera eta Kanbora heltzen ere saiatu behar gara. Halaber, erabat euskaldunak diren txokoetan ere ibiliko gara. Izan ere, arriskatzea ondo dago, baina gure burua ere zaindu behar dugu».

Zirkuak, bide batez, Euskal Herria hobeto ezagutzeko aukera eman diela aitortu du. «Herri batetik bestera ibil-

tzen gara; zirkuan bertan bizi garela esan daiteke. Noizbehinka, munduan gertatzen denaren berri izatea ere gustatzen zaigu». Egunero jende berarekin lo egitea eta gauzak partekatzea «positiboa» dela dio. «Elkarbizitza ona bada, zirkua ona izango da; hori transmititzen saiatu behar dugu».

## Inprobisazioz betetako uda

Arestian aipatu bezala, aurten herri gehiago bisitatuko dituzte, sei hilabetez luzatuko delako bira. Maiatzean hasi ziren, eta lehen emanaldiak Oiarzunen eta Berriren eskaini zituzten. «Oso ondo joan ziren, eta publikoaren gustukoak izan zirela ikusi genuen». Aurrerantzean, «gorputzak uzten duen bitartean jarraitzea» nahi dute.

Gaurtik hasita, Gasteizen eskainiko dituzte saioak, hiru asteburutan, eta, ondoren, Mungian. «Askotan badirudi zirkuak etxe atariraino heldu behar duela. Mezu ugari iristen zaizkigu, hainbat herritatik gonbita eginez. Baina Gasteiz, esaterako, leku ederra da, egun pasa edo asteburu pasa joateko».

Udako emanaldi egitarauari buruz galdetuta, ezer aurreraterik ez daukala dio. «Uztailean sartzean, Bakion ekingo diegu uztaileko emanaldiei. Hortik beste herri batera joan behar genuen, baina zirkoaren muntaia ez da sartzeko. Horixe du zirkuak, batzuetan inprobisatzea tokatzen dela».

# Elkarlanerako prest azaldu da Beasti Bizi

EH Bildurekin batera, herriaren alde lan egiteko prest daude. Gainera, botoa eman dieten 254 berastegiarrak eskertu dituzte.

## Erredakzioa

**B**easti Bizi herri hautagaitzak bere esker ona azaldu dio Berastegiko herriari. Aitor Lizarza zerrendaburu eta zinegotzi berriaren hitzetan, «hautagaitzak eskerrak eman nahi dizkie gugan konfiantza jarri duten 254 Berastegiko herritarrei, udal hauteskundeetan izandako parte hartzeagatik. Herritarrek hitz egin dute, eta beraie-na izan da erabakia».

Jasotako babes horri esker, hurrengo agintaldian izango dira, hiru zine-

gotzirekin. «Berastegi biziberritzeko eta herritar guztion alde lan egiteko prest gara. Herri hau osatzen dugun gizon eta emakumeen ongizatea dugu helburu, eta hori bultzatuko dugu udaletik». Horrekin batera, Beasti Bizik, udal hauteskundeak irabazi dituen EH Bildu taldea «zoriondu» nahi du: «Elkarlanerako gure prestutasuna azaldu nahi dizuegu, elkarrekin Berastegiren alde ekiteko, eta auzolan horretan bat egiteko».

Udal hauteskundeetara lehen aldiz aurkeztu den hautagaitzak botoen %38,60 lortu ditu, eta hiru hautetsirekin sartu da udalean. Udalbatza berriari ondorengo zinegotziak izango dira: Aitor Lizarza, Ainhoa Montes eta Ainara Ciaurriz.

# Aurrera Alegiak eskerrak eman dizkie alegitarrei

Udal hauteskundeetan jasotako babesarengatik, «herri hobe baten alde lanean jarraitzeko 421 arrazoi dituztela» diote.

## Erredakzioa

**J**oan den igandeko udal hauteskundeetan, emaitza onak lortu zituen Aurrera Alegia alderdiak. Estreina-koz aurkeztu ziren alkatetzara eta, 421 botorekin, 4 zinegotzi eskuratu zituzten, EH Bilduk (481 boto) baino 60 gutxiago. «Ez daukagu hitzik herritarrek gugan jarri duten konfiantza eskertzeko», dio Regina Sorra-rain alkatetegiak: «Lehen aldiz aurkeztu, eta lortutako emaitzak izugarriak direla iruditzen zaigu».

Herriak erabakitzen zuen lekutik lan egitea agindu zutela gogorarazi nahi izan dute: «Eta horrela izango da. Oposiziotik arituko gara, herriko egunerokotasuneko arazoei aurre egiten, gure bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko laguntzen, baita herri erakargarri bat eraikitzen ere». Erantzukizunez eta arduraz arituko direla aitortu dute: «Herriari entzun eta, gure programatik aparte, edozein herritarren kezka eta arazoak konpontzen saiatuko gara».

Arestian aipatu bezala, Aurrera Alegia alderdiko lau zinegotzi izango dira, datorren lau urteetan, udaletxean: Regina Sorra-rain, Andrea Larrañaga, Maialen Landart eta Pili Palomares.

# Amasa-Villabonako sozialisten esker ona

## Erredakzioa

**A**masa-Villabonako PSE-EE alderdiko Maria Luisa Arija alkatetegiak herriko boto emaileek alderdi sozialistan jarri duten konfiantza eskertu nahi izan du.

Igandeko udal eta foru hauteskundeetan parte hartzeagatik zoriondu ditu herritarrak eta, nabarmendu duenez, udalbatzan PSE-EEK duen ordezkari-tza handitzea gustatuko litzaiokeen arren, «jasotako emaitzek erakus-

ten dute, Amasa-Villabonako herritarrek udalean egindako lana babesten dutela».

Datorren agintaldiari dagokionez, «herritarren bizi-kalitatea hobetzea» izango du lehentasun bezala Arijak, eta, horrenbestez, talde sozialistak udal gobernuak eramango dituen politikak eta gobernatzeko era «zorrotz» jarraituko dituela aipatu du. Aldi berean, udal gobernu talde berriari eskua luzatu dio elkarlanerako, herritarren beharrak asetzeko.

 tolosaldeko  
ataria

 ataria  
irrati

 ataria  
internet

 ataria  
prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:  
661 67 88 18  
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Ezkerretik eskuinera, Claros, Rivera, Flores eta Arrastoa. J.M.

# Joan-etorriko bidea da senidetzea

06

Aiztondo bailararen eta El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen arteko senidetzea bihar ospatuko dute

Jon Miranda

**E**l Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen eta Aiztondo bailararen arteko senidetzeak, aurten, 26 urte bete ditu. Urtero, garai honetan, urtemuga ospatzeko festa izaten da, txandaka, bailarako herrietan. Amasa-Villabonan zentratuko dira ospakizunak, bihar, Erdialdeko Amerikako herrialdetik bertaratutako ordezkariak harrera egingo diete udaletxean, aurrena, eta Berdura

## Gaur Ipuin kontaketa solidarioa Zizurkilan

Zizurkilgo Pedro M<sup>a</sup> Otaño Herri Eskola Salvadorreko Segundo Montes komunitateko Henry Ortiz ikastetxearekin senidetua dago. Urtero-urtero bi eskoletako zuzendaritzak harremanetan jartzen dira, eta ikasleen arteko elkartruckerako esperientzia bat adosten dute. Gaiak asko izan dira: herri bakoitzeko festa eta ospakizunak;

plazan, ondoren. Herri bazkariarekin biribilduko dute festa.

1993an, El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin senidetzea erabaki zuen Zizurkilak. Gerora, egitasmoarekin bat egin zuten Aiztondoko gainerako udalerriek: Amasa-Villabonak, Asteasuk, Adunak eta Larraulek. Morazan departamenduan, Meanguera eta Jocoaitique udalerrietan dago banatuta komunitatea, eta UCAko unibertsitatean 1989an erail zuten Segundo Montes jesuita gogoan hartuta jarri zioten izena. Eraiketa gertatu zenean erabaki zuten, gerratik ihesi, Honduras hegoaldean errefuxiatuta zeuden herritarrek, Morazan departamendura itzultzea.

nak; musika taldeak; herriko txoko kuttunak; Aiztondo bailarako biodibertsitatea... Aurtengo gaia eskola bera izango da.

Bideo-muntaia batean oinarrituko da. Hala ere, elkarlan horrez gain, Pedro M<sup>a</sup> Otaño Herri Eskolak hainbat jarduera egin ditu, dirua bildu eta Henry Ortiz eskolara bideratzeko: Zizurkilgo Azoka Berzian parte hartu, eskolako egutegia, Eguberrietako eta Santa Agedako errondak eta gaur egingo

## SENIDETZE ASTEA

### EKAINAK1, LARUNBATA

**12:00.** Harrera instituzionala Amasa-Villabonako udaletxean

**13:00.** Herritarren ongietorria Berdura plazan.

**14:00.** Herri bazkaria Berdura plazan.

Mikel Arrastoa Zizurkilgo alkatea zen 1993an, eta orduan ezagutu zuen El Salvadorreko egoera: «Erbestetik itzuli berriak, momentu hartan behar gehien beraiek zutela ikusi genuen. Musika talde bat ezagutu genuen hara egindako bidaiari, eta Euskal Herrira etortzera gonbidatu genituen. Hor abiatu zen senidetzea». Euskal Fondoko lehendakariorde da Arrastoa, eta urte hauetan guztietan, kooperazioari esker Segundo Montes komunitatean egindako lanak zerrendatu ditu. «Bidean ikasi egiten da. Hasieran, gure hemengo ikuspegiarekin joan ginen, etxebizitza altu eta handiak egitera. Haien beharrak bestelakok zirela konturatu ginen, ordea. Gero ur eta saneamendu sareak osatzen lagundu genuen, pixkana».

## Bestelako proiektuak

Egunotan Aiztondo bailaran da Walter Alexander Claros. Jocoaitiqueko Udalean (Morazan, El Salvador) egiten du lan, kooperazio arloan. «Ur edangarria eskuratzeo herritarren beharra %80an estaltzeko aukera izan dugu, besteak beste, Euskal Fondotik jasotako laguntzari esker». Elkartasunari esker garatutako proiektuen berri ematera bertaratu da Claros, Euskal Herrira, baina baita bestelako esperientziak ezagutzera ere. «El Salvadorren arazo handia dugu biolentziarekin, eta gazteekin lan egin beharra dago, kultura, aisialdi eta lanbide heziketa arloetan, adibidez. Ezinbestekoa da gai horietan sakontzea, gizarte bake-

den saioa. Ipuin Kontaketa egingo dute, 15:00etatik aurrera, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek. Aurten 7 gune antolatuko dituzte, eta bakoitzean ipuin kontaketa desberdin bat egingo dute. Ondoren, kontaketaekin erlazionatutako jarduerak egingo dituzte. Ipuinak desberdinak dira, baina aurten badute, guztiek, ildo berdina. Ikastetxean urte osoan lanean aritu diren gaiarekin lotura du: harreman osasuntsuak.



tsuago bat lortzeko eta bizikidetzaz ziurtatzeko».

Segundo Montes komunitatean bezala, beste hainbat zonaldeetan ere gauzatu dira proiektuak, Euskal Fardoaren bitartez; Suchitoton (Cuscatlán, El Salvador) adibidez. Bertako alkatea da Pedrina Rivera eta, bere esanetan, garapena ez da bakarrik azpiegiturak sortzea, «formazio prozesuek ere garrantzi handia dute». Genero ikuspegitik udal politika aitzindariak garatzeko, Euskal Herriko laguntza jaso dute Suchitoton: «Gure herrialdean kultura matxista oso errotuta dago. Sentsibilizazio kanpainak jarri izan ditugu martxan eta, ondorioz, emakumeek jarrirako salaketak ugaritu egin dira. Horri erantzun ahal izateko, Unimujer izeneko espazioa sortu dugu, non azpiegitura fisikoaz gain, biolentzia matxista jaso duten emakumeak artatzeko lan talde profesionala dabilen. Bertan babestuta sentitzen dira emakume erasotuek».

Ur edangarri eta saneamendu sarea %100ean osatuta dute Suchitoton, eta proiektu horiek lantzerakoan genero ikuspegia txertatu izan dutela dio Riverak: «Etxeko lanen karga murriztea lortu dugu, emakumeen bizi kalitatea hobetuz. Ur edangarria ez dagoen tokietan, kilometro bat egin behar izaten dute, oinez ura ekartzeko eta, lan horiek, beti, emakumeek egiten dituzte».

Egunotan, Claros eta Rivera, Suchitotik etorritako Esmeralda Flores gaztearekin batera, Aiztondo hainbat proiektu ezagutzen ari dira. «Oso eskertuta gaude. Asko egin da, baina asko dago egiteko. Konpromiso handia dugu bileraldeen elkartzasun hau iraunkorra izan dadin», esan dute.

## Loatzo musika eskolak jaialdia antolatu du Uzturperen alde

Gaur, 22:00etan, ikastolako frontoian izango da, eta Alurrek eta Ibarako eta Zizurkilgo erraldoiek hartuko dute parte

### Erredakzioa

**L**oatzo musika eskolak ikasturte amaieran jaialdi handi bat antolatu izan du azken urteetan. Aurten, emanaldi horrek izaera solidarioa hartuko du. Ainhoa Elizondo musika eskolako zuzendariak aipatu duenez: «Duela 17 urte, sortu ginenean, Uzturpe ikastolak atea ireki zizkigun, bertan klaseak emateko. Beraz, lotura aspaldikoa dugu. Ikastola berritzeko lanetan izan diren arazoak tarteko jakin genuen laguntza ekonomikoa behar zutela. Guk dirua ezin dugu eskaini, baina bai ondoen egiten dakiguna: musika».

Ez dute sarrerarik kobratuko, baina emanaldiaren hasieran norberak borondatea eman ahal izango du. Ikastolako ikasleek parte hartuko dute eta, horrekin batera, Alurr dantza taldeak eta Ibarako eta Zizurkilgo erraldoiek hartuko dute parte. Loatzo musika eskolako talde guztiak ariko dira, eta oholza gainean 350 ikasle izango dira. Errepertorio zabala eskainiko dute eta guztia ondo aterako dela espero du Elizondok: «Elkarlanak beti ekartzen ditu gauza onak».

## Herri Ikastolak 50. urtemugako ekitaldiak amaituko ditu

Anoetan igandean egingo dute ikastolaren eguna eta urteurreneko ekitaldiak biribiltzeko balioko du festak

### Erredakzioa

**I**kasle, irakasle eta gurasoen artean antolatzen dute, urtero, Anoetan, ikastolaren eguna. Aurten, ordea, egitarau berezia prestatu dute, urteurren biribilaren harira.

Antolatzaileek iragarri dutenez, euria eginez gero, ipuin kontaketa saioa, omenaldia, magia ikuskizuna eta arratsaldeko tailerrak kiroldegian egingo dituzte.

### IKASTOLAK SOUTE

#### EKAINAK 2, IGANDEA

**09:00.** Ibilaldi neurtua.

**11:00.** Kalejira plazatik ikastolara.

**11:00.** Eskularen erakusketa 13:00 arte, ikastolako gela borobilean).

**11:30.** Ipuin kontalaria.

**12:15.** DBHko laugarren mailakoei agurra eta omenaldia.

**14:00.** Bazkaria Anoetako frontoian. Norberak bere ontziak eta aho zapia eraman beharko ditu.

**16:00.** Kantu saioa.

**16:30.** Magia ikuskizuna.

**17:30.** Tailerrak txikientzat eta batukada gaztetxoentzat.

## Hilberriak eta urteurrenak

**ataria** jarrita  
Goierriko eta Urola Kostako  
Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95  
Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu  
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



-I. URTEURRENA-  
**Juana Mari  
Zinkunegi Beloki**

(Fermin Lasaren alarguna)

2018ko ekainaren 4an hil zen, 101 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

*Bada urte bete gure ondotik joan zinela,  
baina zure oroimenak gugan dirau  
bizirik betiko.*

Etxekoak

Urtebetetze meza datorren IGANDEAN, ekainaren 2an, izango da, eguerdiko HAMABI eta ERDIETAN, URRETXUKO TOURSEKO SAN MARTIN parroki elizan. Aldez aurretik mila esker.

URRETXUN, 2019ko maiatzaren 31n



Egoera txarrean zegoen lur zatia ari dira berritzen, Alegiako San Juan kalean. E. MAIZ

# Lurra berritzen ari dira San Juan kalean, ermita parean

Egoera txarrean dagoen lurra aldatuko dute Alegiako San Juan kaleko 13-15 zenbakietan

## Erredakzioa

**J**oan den astean hasi ziren, Alegiako San Juan kaleko 13-15 zenbakien pareko lurra berritzen. Ermitaren pareko lur zatia da altxatu dutena; egoera txarrean zegoen lurra kendu dute, eta berria jartzen ari dira.

Lan horiek irauten duten bitartean, ermitaren parean kalea itxita egongo

da eta, hori dela eta, San Juan 13-15etik gorako garajeetako erabiltzaileek, eta zamalanak egin behar dituztenek, Tontokaletik sartu eta atera beharko dutela azaldu du udalak: «Hori dela eta, lanek irauten duten bitartean San Juan kaleak bi noranzko izango ditu Tontokaletik San Juan 13-15 zenbakien pareraino. Epe horretan, pibotea behean egongo da».

Oinezkoei dagokienean, San Juan kaleatik beherantz doazenez lanak eginen ari diren eremutik pasatu ezingo dutenez, Bideberrieta eta ibai ondoko pasealeku aldera doazen pasabideak

erabili beharko dituzte. Erbeta aldetik datozenek ere gauza bera egin beharko dute parkera iritsitakoan, hau da, Bideberrieta aldetik edo ibai aldeko pasealekutik jarraitu beharko dute bidea egiten.

Herritarrei ulermena eskatu die Alegiako Udalak, eta baita barkamena ere, lanek eragin ditzaketan eragozpenengatik.

Aldi berean, lanek irauten duten bitartean, San Juan kaleko zati batek bi noranzkotako trafikoa izango duenez, gidariei arreta berezia jartzeko eskatu diete.

## Bidaniako I. Frontoi Txikiko Txapelketan, izen ematea

**Bidania-Goiatz.** Bidaniako I. Frontoi Txikiko Binakako Txapelketa Herrikoia antolatuko dute 14 urtetik gora koentzat. Finala abuztuaren 23an jokatuko dute, eta izena emateko azken eguna ekainaren 17a da. Izena Bidaniako festetako batzordeko edozeini esanda, edo Saiaz Elkartearen egongo den listan eman beharko da. Saria, lau lagunentzako afaria da.

## Izen ematea zabalik, Zimiterioko txapelketan

**Zizurkil.** XVII. Eskuz Binakako Pilota Txapelketan parte hartu nahi duenak izena eman behar du, ekainaren 7a baino lehen. 695 75 29 62 edo 617 699 400 telefono zenbakietara deituz apunta daiteke, eta bikoteko 10 euro ordaindu beharko da. Lehen lau sailkatuentzat sari potoloak daude, eta herriko lehen bikotearentzat 30 euroko saria jarri dute.

## Tolosako azokako postuak lekuz aldatuko dira

**Tolosa.** Bihar, ekainak 1, Bisiguaren eta Sagardoaren Festa egingo dute, Tolosako Zerkausian. Hori dela eta, asteroko azokan izaten diren Zerkausiko postuen kokalekua aldatuko dute. Kasu honetan, baserriarren postu horiek Triangulua plazan kokatuko dituzte. Aldiz, Euskal Herria eta Berdura plazakoek bere horretan jarraituko dute.





## ESKUZ

### BENJAMINAKA

#### BERASTEGI,

#### FINAL ZORTZIRENAK

##### Ostirala, 18:30

Garcia-Estevez  
 Sanchez-Alijostes  
 Goitia-Arsuaga-Elduaien  
 Garaikoetxea-Otaegi  
 Gonzalez-Zufiria  
 Goñi-Karrera  
 Altuna-Arandia  
 Otaegi-Mayoz

### ALKIZA,

#### FINAL ZORTZIRENAK

##### Ostirala, 18:30

Artola-Freitas Dos Santos  
 Larrarte-Garmendia  
 Iparragirre-Tejeria  
 Ormaetxea-Urkola-Elola  
 Iraola-Navarro  
 Aizpurua-Odrizabala  
 Vidaurreta-Lacarra  
 Lacarra-Erro

### BENJAMINAKB

#### ALBIZTUR,

#### AURRETIKOA

##### Ostirala, 18:30

Aldalur-Arandia  
 Aperribai-Esnaola

Zubillaga-Saizar  
 Arruti-Val-Roteta  
 Otaño-Gurrutxaga  
 Saralegi-Saralegi  
 Arteaga-Nazabal  
 Herrero-Iturrioz-Garmendia

### IRURA,

#### AURRETIKOA

##### Larunbata, 10:00

Urruzola-Gorriti  
 Sagarna-Kamio  
 Lanzeta-Iraola  
 Martin-Saizar  
 Mintegi-Acosta  
 Ezkioaga-Iruretagoiena  
 Telletxea-Zabala  
 Ruiz-Eizagirre

### ALEBINAK

#### ALTZO,

#### FINAL ZORTZIRENAK

##### Ostirala, 18:30

Murua-Elola  
 Zubillaga-Lobo  
 Aristeta-Barbero  
 Lopetegi-Munduete  
 Castro-Iglesias  
 Ayestaran-Saralegi  
 Meulman-Otaegi  
 Zufria-Aranburu

### ZIZURKIL,

### FINAL ZORTZIRENAK

##### Ostirala, 18:30

Iparragirre-Aranburu  
 Agirrezabal-Lanzeta  
 Insausti-Lopetegi  
 Agirre-Tolosa  
 Altuna-Perurena  
 Larrarte-Oñate  
 Elola-Unanue  
 Izagirre-Segurola

### PALAZ

### ALEBINAK

#### BIDANIA-GOIAITZ,

#### 3. JARDUNALDIA

##### Ostirala, 18:00

Juanena-Beobide  
 Agirre-Etxarri  
 Saizar-Agirrezabala-Villena  
 Luluaga-Iturrioz  
 Zabala-Iruretagoiena  
 Ezeiza-Juantorena  
 Agirre-Murua  
 Sarasola-Navarro

### KADETE-JUBENILAK

#### BIDANIA-GOIAITZ,

#### 3. JARDUNALDIA

##### Ostirala, 18:00

Olano-Karrera  
 Agirre-Murua  
 Iturrioz-Aranburu  
 Urkola-Herrero



## Ander Urangaren marka izugarria, 200 metroetan

**Erredakzioa**

**J**oan den asteburuan, Donostiako miniestadioan, eguraldi traketsarekin, Gipuzkoako absolutu mailako txapelketa egin zuten. Bertara hainbat atleta urdin joan ziren lehiatzera, eta emaitza oso onak izan zituzten, zegoen eguraldirako. Atleta bat nabarmendu zen, besteen gainera, egindako markarengatik: Ander Uranga anoetarrak 21,57ko denbora egin zuen, 200 metroetako proba irabaziz. Tolosa CFko marka da, bere aurrekoa 36 ehunenekotan jaitsiz, eta 20 urtez azpiko Europako Txapelketara joateko Espainiako Federazioak eskatzen duen 21,30eko markatik gertu.

«Eguraldi txarra zegoen, pista oso bustita zegoen eta putzuak ere bazeuden pista», esan du Uranga: «Pentsatzen nuen jaitsiko nuela marka, baina hainbeste ez, kontuan izanik eguraldia, eta asteburuan korritzen

nuen laugarren proba zela». Denboraldian zehar izango diren txapelketa eta probetan marka are gehiago jaitea espero du anoetarrak.

Guztira 19 domina lortu zituzten Tolosa CFko atletak: 7 urre, 6 zilar eta 6 brontze. Urreak ondorengoek lortu zituzten: Ander Uranga, 100 eta 200 metroetan; Sergio Roman, 5.000 metroetan; Maddi Perurena, 400 hesietan; Ane Martin, 3.000 metroetan; Maddi Lillo, Laura Biurrun, Ainhoa Gibelalde eta Nora Ituarte, 4x100 metroetan; eta Paula de Juan, Jone Agirrezabala, Ainara Lakuntza eta Maddi Perurena, 4x400 metroetan. Zilarra ondorengoek: Ander Etxeberria, 5.000 metroetan; Javi Iraola, jabalinan; Uxue Sudupe, 400 metro oztopoetan; Lizeta Nnegue, pisuan; Nora Ituarte, 100 metroetan; eta Julen Martin, 110 metro oztopoetan. Brontzeak ondorengoek: Mireia De la Parra, jauzi hirukoitzean, 11,23 metro eginez, eta Tolosa



Ander Uranga, bigarrena ezkerretik. ATARIA

CFren marka ezarriz, eta luzera jautzian; Ander Garin, 5.000 metroetan; Izaro Perurena, 800 metroetan; Lizeta Nnegue, disko jaurtiketan; eta Iraitz Pikabea, 3.000 metro oztopoetan.

Domina eta errekor huez guztiez aparte, beste emaitza oso aipagarria izan zen miniestadioan. 600 metroko proban, bere taldekide Paula de Juane lagundurik, June Sudupek 16 urtez azpiko Gipuzkoako marka egin du, 1.37,13ko denborarekin. Marka horrekin Espainia mailako sailkapenean hirugarren postua lortu du.

## 450 txirrindulari inguru elkartuko dira Abraham Olano Zikloturista Martxan

**Erredakzioa** Tolosa

**T**olosako Usabal kiroldegiairen aurrealdetik izango du irteera, VI. Abraham Olano Zikloturista Martxak. Igande honetan da hitzordua, 08:00etan. Guztira 450 txirrindulari inguru daude izena emanda parte hartzeko, orain arteko kopuru handiena, eta bi ibilbide izango dituzte aukeran: luzea, 157 kilometrokoa, eta motza, 94 kilometrokoa.

Ibilbide motzak ondorengo bidea du: Tolosa, Villabona, Asteasu, Andazarrateko gaina, Zarautz, Getaria, Garateko gaina, Meagas, Aizarna, Etumetako gaina, Errezil, Bidaniako gaina, Bidania-Goiatz, Albiztur eta Tolosa. Ibilbide luzea egin nahi dutenek aurrera jarraituko dute, ondorengo bidea eginez: Leaburu, Belauntza, Iba-

rra, Berrobi, Berastegi, Leitza, Uitziko gaina, Lekunberri, Azpirotz Gaina, Beltelu, Lizartza eta Tolosa.

Oriako Txirrindulari Eskolak antolatzen du martxa, eta Aitor Aiertza bertako lehendakariak gogora ekarri duenez, «ez da lehiaketa bat, eta ez da sailkapenik egiten. Ertzaintza egoten da lasterketa kontrolatzen, bai aurrean eta bai atzean, eta errepideko arau guztiak errespetatu egin behar dira». Ibilbide luzearen kilometro kopurua mozteak inoiz izan den parte hartze handiena eragin duela uste du Aiertzak. Abraham Olano bera ez da izango, Gabonen baitago, hango txirrindulari selekzioaren hautatzaile moduan, baina izen ezagunak egongo dira irteera puntuan: Haimar Zubeldia txirrindulari ohia eta Xabi Fernandez nabigatzaile ibartarra.



lazko martxaren hasiera. I. URKIZU

# Finalerdietan, Aurrera de Vitoria

I. Garcia Landa Tolosa

**B**este neurketa bat gainditu eta finalerdietara iritsi da Tolosa CFko emakumeen talde nagusia, Euskadiko Federazio Kopan. Hurrengo aurkaria Aurrera de Vitoria izango da, eta bi partidetak izango dira finalerdia: lehenengo kanpoan eta gero etxean jokatuko dute.

Beasaingo Goierri Gorriren aurka gainditu zuten final-laurdenen kanporaketa, 1-3 irabaziz. «Etxetik kanpo beti da zailagoa jokatzea, eta partida batera izanda, edozer gauza gertatu daiteke», esan du Imanol Cabero entrenatzaileak. «Ondo atera ginen, eta nik uste dut lehenengo zatia gurea izan zela, jabetzaren aldetik, eta aukera gehiago ere izan genituen». Golik gabe bukatu zen lehen zatia, eta bigarrenengan hamar minutura sartu zuten lehen gola, Ainhoa Bengoetxearen bitartez. Gero, banakoa sartu zuten Goierri Gorrikoek, eta zenbait minututan sufritzen aritu ziren. «Penalti bati



Tolosa CFko jokalariek, Goierri Gorriren aurkako gol bat ospatzen. JAVIUROLA

esker Maddik bigarrena sartu zuen, eta 94. minutuan hirugarrena sartu zuen Saioak. Bigarren zatiko minutu batzuk gaizki pasatu genituen, baina gero partida ondo bukatu genuen, baloia berreskuratuz.

Entrenatzaileak azaldu duenez, «sekulakoa da neskak jartzen ari diren gogo finalerdietara pasatzeko eta lehiatzen jarraitzeko. Zaila da behin igoera lortuta, orain kopan jarraitzea maila horrekin». Aurrera de Vitoria bigarren

mailako taldea da eta bederatzigarren bukatu du liga. «Argi dago faboritoak beraiek direla, maila bat gorago baitaude. Aukera gehiago ere izango dituzte, bi partidetan erabakitzen denez, zailagoa izango da guretzat ezustekoa ematea. Gogoz gaude, behintzat, bi partidetan lehiatzeko, eta Usabalera aukerekin iristeko». Igande honetan jokatuko dute joaneko partida, Gasteizko Olanarbe futbol zelaian, 11:30ean hasita.

## V. Manu Muriel Memoriala izango da bihar jokoan

**Amasa-Villabona.** Billabona futbol klubak antolatuta, V. Manu Muriel Memoriala izango da jokoan, bihar, Arratzainen. Alebin mailako lehen urteko futbolariak jokatuko dute, guztira, hamahiru talde. 10:00etan hasiko da eta 19:00etan finala izango dela aurreikusten dute. 12:00etan egingo dute lore eskaintza Manu Murielen omenez.

## Lau partida, biharkorako, San Joan Txapelketan

**Tolosa.** Lau eta erdiko San Joan Txapelketan lau partida jokatuko dituzte, bihar, 10:30ean hasita, Beotibarren. Jubeniletan, bi partida izango dira: Goikoetxea eta Larrazabal, eta Altuna eta Fernandez. Elitean, beste bi partida: Elola eta Ioritz Eiguren, eta Espinal eta Mata.

## Herriarteko partidak, eskuz zein gomazko paletan

Erredakzioa

**H**erriarteko Pilota Txapelketan, eskuzko modalitatean, final-laurdenei ekingo diete lehiak geratzen diren eskualdeko bi herriek, Altzok eta Tolosak. Altzok Azkoitiaren aurka jokatuko du, bihar, Altzo Muinoko frontoian, 17:00etan hasita. Tolosak Ataunen kontra bihar, Ataungo Auzoeta frontoian, 18:00etan hasita.

Gomazko paletan, final-laurdenen itzulerako neurketak dituzte. Anoetak Azkoitian jokatuko du, Gurean, bihar, 10:00etan hasita. Tolosak Irunen aurka jokatuko, bihar, 18:30ean hasita, Irungo Artaleku frontoian.



## GOIERRIKO BOLA TXAPELKETAN, PATXI ARRONDO TXAPELDUN

Aurreko larunbatean Mutiloan amaitu zen aurtengo Goierriko Bola Txapelketa. Zazpi jardunaldiz osatutako txapelketa da eta aurtengo txapeladuna Patxi Arrondo tolosarra izan da. Azken jardunaldira bi birako aldearekin iritsi zen Arrondo. Mutiloan, bigarrenengoarekiko abantaila horri eutsi eta txapela irabaztea lortu zuen. ATARIA



# KONTZER TUAK



## makina bat taupada

euskal eskola publikoaren jaia, ekainak 2

**errenteria**

### Larunbatean:

19.00 Nerabe (Herriko Plazan)

### Igandea:

- 11.30 eta 12.30 DJ Burguete-DJ Txurru (Ondartxo)
- 12.00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Agirre Lehendakariaren Plazan)
- 13.00 eMe (Herriko Plazan)
- 15.00 Ene Kantak (Herriko Plazan)
- 15.00 Dantza urbanoa (Ondartxo)
- 16.00 Demode Quartet "Epa Txiki" (Agirre Lehendakariaren Plazan)
- 16.00 Aneguria (Ondartxo)
- 17.00 Izaki Gardenak (Herriko Plazan)
- 18.00 Nogen (Agirre Lehendakariaren Plazan)

**ERABILI GARRAIO PUBLIKOA**



# Konposta gaitezen!

**B**izitzak ziurgabetasun asko ditu, bai, baina, bada ziurra den egia biribil bat: guztiok hil egingo gara. Agian ez hemen, eta ez orain. Agian bihar ere ez. Halere, eguna iritsi, iritsiko da. Litekeena da Zientziaren Talaiako irakurleak inoiz horretan pentsatzen ez jarri izana, baina, heriotzaren ostean gure gorpuarekin zer egin nahi dugun erabaki nahi badugu, aukera badago une horretan ere ingurumen kontzientzia izateko.

Hil ostean gure gorputza izandakoa deskonposatzen hasten da, eta hainbat prozesu kimiko eta biologiko gertatzen hasten dira. Zelulak hiltzen direnean, entzimak zelulak berak digeritzen hasten dira. Ondoren bakterio eta onddoak datoz, gero zizare eta kakalardoak, eta abar. Horri guztiari esker, gorputza desegiten eta desagertzen doa. Prozesu metabolikoen ondorioz, lurperatu egiten bagaituzte, geure gorpuak gas toxikoak –metanoa, karbono tetrakloruroa, freoia, sulfuroak, eta abar– igortzen hasiko da, eta likidoak lixibatu egingo dira, substantzia toxikoak emanez. Beste zenbait, hori bai, lurarentzat ongariak izango dira; baina, esan bezala, gure gorputzak berotegi-efektua areagotuko duten gasak igorriko ditu, hil ondoren.

Lurperatzearen alternatiba gisa errausketan pentsatzen baduzu, litekeena da ingurumenarentzat okerragoa izatea. Ezagunak dira hondakinen erraustekak ekar ditzakeen ondorioak eta gu, gustatu ala ez, hondakin biologiko bihurtuko gara. Errausketan energia asko gastatzen da, eta 100 bat litro erregai behar dira gorpu bat kiskali eta errauski bilakatzeko. Gainera, hidrokarburo aromatiko minbizi-sortzaileak ekoiztuko dira. Hortz-inplanteak baldin baditugu, merkurioa askatuko da hondakin gasekin batera, eta tau-pada-markagailuek eta antzekoek konposatu arriskutsuak sortuko dituz-



JOKE VANDER LEIJ / PIXABAY

te. Ez da izango gorpua desagerrarazteko modurik ekologikoena.

Hari horretatik tiraz, badira heriotza berdeak nahi dituztenak. Hain zuzen ere, bizitza guztia ingurumena zaintzen pasatu duenak, nola egingo du lo lasai, hil ostean hondakin kutsakor eta berotegi-efektuko gas bihurtuko dela jakinda? Bada, arazo horri irtenbidea emateko gero eta aukera

gehiago ditugu mahai gainean. Horietako bat benetan bitxia da, baina, duela gutxi onartu berri dute hori baimenduko duen legea, Washingtonen: gorpuarekin konposta egitea. Ondo pentsatuta, zentzua du. Materia organikoarentzat irtenbide garbiena konposta egitea bada, zergatik ez konpostatu geure burua? Bada, hori ahalbideetako duen legea onartu berri da, eta bada en-

presa bat hori egiteko prest dagoena. Momentuz, lehen probak egin dituzte sei boluntarioekin –edo boluntario horien gorpuarekin, hobeto esanda–. Gorpuak kutxatxoetan jarri, eta egu-

rrarekin, lastoarekin eta alpaparekin batera jartzen dituzte. Tenperaturaren eta hezetasunaren kontrol zorrotzarekin, mikro organismoak lanean hasten dira eta, aste gutxi batzuk pasatutakoan, familiak lurrez beteriko kantitate polita –bi eskorga– jasotzen du, nahi duena egiteko.

Konpostatutako gorpua ongari itzela da lurarentzat eta, hortaz, etxeko lorategian edo baratzean zabal daiteke porruak, patatak edo arrosak landatzeko. Beste aukera, hildakoaren omenez zuhaitz bat landatzea izan daiteke, adibidez. Edozein kasutan, irakurritako albistea pozez hartu dut; izan ere, ingurumen-kontzientzia azken muturreraino –edo azken momenturaino– eramateko aukera ematen du. Gaiari tiraka, gorpuarekin edo errautsekin egin daitezkeen hainbat gauza xeble ikusi ditut. Horien artean, atentzioa eman dit Mesoloft enpresak errautsak 24 km-ra igotzen dituela, heliozko globo batekin, bertan lau haizetara askatzeko. Ez dakit aukerarik ekologikoena den, baina, tira, konposta egiteko moduak zabaltzearena aztertu beharko genuke...



**JOSU LOPEZ-GAZPIO**  
KIMIKAN  
DOKTOREA ETA  
ZIENTZIA  
DIBULGATZAILEA



# EUSKARA ZAINZERA

# DATOR IKAZNE

Ikaztegiako Euskara Taldeak bultzatuta, herriko haurren euskararen erabileran eragiteko ipuina sortu dute. Ikazne da protagonista, eta dagoeneko herriko neska-mutilek eskolan irakurri eta landu dute.





### Eneritz Maiz Etxarri

**E**skualdeko herri guztien moduan, Ikaztegieta herri euskalduna da, baina urteak dira, herri mailan, euskararen erabilerak kezka sortu zuela. Batez ere, haurren arteko komunikazio hizkuntza izan da deigarria egin zaiena: lehen ez bezala, herriko gero eta haur gehiagok, txikitatik, gaztelania erabiltzen dute.

Egoera horren aurrean, eta herriari begira lan egiteko, 2018ko martxoan sortu zuten euskara taldea. Hasiera batean, Euskaraldiari begira egin zuten lan, baina, Euskaraldiaren bidea bukatuta, haurrei begira jarri ziren buru-belarri, herrian euskarak bere garrantzia izan dezan, eta haurren kontzientzietan eragiteko.

Herriko plazan, zenbaitetan, neska-mutilek euskara baino gehiago gaztelania erabiltzen dutela diote. Gloria Castaños euskara taldeko kidea da, hasieratik: «Kezka horri begira, eta umeak euskararekin inplikatzeko, ideia polit bat asmatu behar genuela ikusten genuen. Buelta batzuk

## Lehen ez bezala, herriko gero eta haur gehiagok, txikitatik, gaztelania erabiltzen dute

emanda, ipuin bat asmatzearen ideia sortu zen». Herrian idazlea izatearen abantaila baliatu dute horretarako: «No-labait euskarak protagonismoa izango zuen, edo euskarak berak izan behar zuen protagonista ipuinean eta, Iñaki Zubeldia gure taldekoa dela aprobetxatuz, bertakoa, idazlea eta dena bere alde duela, berarekin harremanetan jarri gin-

en», azaldu du Castañosek. Ideia gustukoa izan zuen Zubeldiak, eta martxan jarri zuten ipuina.

Eskolakoekin jarri ziren harremanetan, taldearen asmoen berri emateko: «Gure kezkatik abiatuta azaldu genion, eskolako zuzendariari, gure asmoa, eta beraiek ere bazuten kezka hori. Gustura hartu zuten ideia, eta abiapuntua hori izan da». Nerea Altuna Ikaztegieta Herri Eskolako ikas-

keta burua da, eta proposamena gustura jaso dutela dio: «Gure eskolako hizkuntza nagusia euskara da, eta hemen euskaraz bizi gara, eta euskarak badu presentzia, baina, baditugu ikasleen artean hainbat, erdararako joera dutenak. Aukera polita iruditu zitzaigun guk ere egitasmo honetan parte hartzea».



Eskolara Ikazneren ipuina gutun moduan iritsi zen; Tartalo, Galtzagorri, Basajaun, Lamia eta Mariren izenean, hain zuzen ere. Euskal mitologia landu dute, eta gela bakoitza pertsonaia batek ordezkatzen du. Ipuina gela guztietan irakurri dute, eta «hausnarketarako aukera ematen du», so-lasaldian ere aritu baitira ikasleekin, ikasketa buruak argitu duenez: «Ipuina irakurri ostean, ikasle bakoitzak bere irudimenaren arabera irudikatu behar zuen Ikazne protagonista, eta ikasle bakoitzak egin du bere ustezko Ikazne hori».

«Aurreikusitako hurrengo pausua hori zen», dio Castañosek: «Pertsonaia badago ipuinean, Ikazne. Euskara irudikatu dezakeena. Protagonista bai, baina irudirik gabea zen, eta umeei eskatu diegu egiteko». Euskara taldeak jaso ditu eskolako haurrek egin dituzten marrazki guztiak: «Ume bakoitzak, bere irudimena aterata, bere irudia egin du. Zoragarriak denak. Oso ideia ezberdinak, baina oso ondo irudikatzen dute guztiak, ipuinak kontatzen duena. Orain guztiak kontuan hartuta, hortik, ahal dela, irudi bakar bat aterako dugu».

Ikasleek ipuina «ondo eta gustura» hartu dutela kontatu du Nerea Altunak. Eskolako proiektuarekin bat etorri zaie: «Aurretik ere, sorginak eta euskal mitologiaren gaia lantzen aritu gara. Protagonista sendabelarretan jakituna da, eta eskolako haurrek ere horretan ari dira. Ezustean etorri den zerbait da, baina gure proiektuarekin lotura oso zuzena duena; eta, gainera, euskararen erabilera sustatzeko eta hor gure hazitxoak jartzeko aukera polita ikusten genuen». Eus-

kararen erabilerari dagokionean, irakasleak nabarmendu du, haurrek euskara erabiltzeko joera dutela, baina, «beraien familia egoeragatik-edo erraztasuna dutenek», badutela ohitura gaztelaniara jotzeko: «Eta horrek ekartzen duena da, euskaldun den hori, batzuetan, beraiekin gaztelaniazko giro horretan sartzea».

Eskola euskalduna dela diote, eta gaztelaniarako joera duten horiek «erabat euskal giroan murgilduta egotea» gustatuko litzaiekeela ere azpimarratu du.

Egitasmoak ia ikasturtea bukatzeaz harrapatu ditu, bai euskara taldea eta baita eskola ere. Ikasturtea bukatzerako irudi berria izatea ez da posible izango, baina, irailetik aurrera, aukera izango dute, berriz ere, proiektuari ekiteko. Hala ere, umeei eta irakasleek baino ez dituzte ikusi marrazki horiek eta, ikasturtea bukatu baino lehen, herritar guztiak ikusteko moduan jarriko dituzte, erakusketa batean. Euskara taldetik jakinaraziko dute, non eta noiz izango den ikusgai.

Gloria Castañosek azaldu du, irailetik aurrera ere indartsu etorriko dela Ikazne: «Ikasturtea ilusioz hasteko, berriz ere gure Ikazne berreskuratuko dugu, hainbat egitasmorekin eta euskararekin. Ea asmatzen dugun, eta lortzen dugun umeak eta familiak ondo inplikatzeko. Baina, asmoa, noski, gure euskararen maskota edo gure Ikaztegieta maskota izatea litzateke; luzera begirako. Nik horrela irudikatzen dut, eta ea lortzen dugun guztiok horrela irudikatzea». Ilusioz kontatu du: «Ikaznek alaitu, zaindu, lagundu eta animatu; dena egingo digu».

# «Ikazne bere hizkuntza, ohiturak eta bere bizimodu bukoliko hori estimatzen dituen pertsonaia da»

**IÑAKI ZUBELDIA**  
IDAZLEA

Ikaztegieta eta euskara oinarrian  
dituen ipuina idatzi du,  
herriko euskara taldeak eskatuta



## **Ikazne ipuina idatzi duzu. Nolatan jaso zenuen eskaera hau?**

Eskaraldia pasa ostean, Gloria etorri zitzaidan, euskara taldetik, herrirako eta, batez ere haurrentzat, ipuin bat sortzea nahi zutela esanez. Bertako pertsonaiaren bat nahi zutela, euskararen alde egingo zuena. Ikusten dutela haurrek plaza gaztelaniaz hitz egiten dutela, eta tristura ematen diela. Orduan, nolabait euskara defendatuko zuen norbait eta herriarekin lotutakoa nahi zutela esan zidan.

## **Eta Ikazne sortu duzu. Zertan oinarritu zara?**

Ikaztegieta ikazkinen herria izanik, hortik, Ikazne, neska bat jarri nuen. Pentsatzen dut garai batean Ikaztegieta herri lasaia izango zela. Ikaztegiaren egingo zuten lan basoan, eta denak euskaldunak izango ziren, noski. Herri lasai bat eta jende lasaia. Eta, gaurko ikuspegi super moderno honetatik, kanpoko hizkuntzen eta kanpoko kulturen eragin handitik begiratuta, pixka bat bukolikoa zen mundu hura. Eta Ikaztegieta oraindik bukoliko hori pixka bat mantentzen du, hau da, nahiko landa eremuko giroa du, nahiz eta trenak eta autobideak egin dizkiguten. Badu oraindik kutsu hori. Kanpoko hizkuntzen eragina izugarria da, eta frantsesak, ingelesak eta gaztelaniak oso-oso fuerte erasotzen digute. Orduan, bere hizkuntza, ohiturak eta bere bizimodu bukoliko hori estimatzen dituen pertsonaia da.

## **Nolakoa da Ikazne?**

Garai batean neskatila bat zen, baina ikasi zuen belarrak zaintzen. Emakume jakintsua egin zen eta, garai batean, emakume jakintsuak sorginak ziren. Ez pertsona gaizto, baikik eta, pertsona jakintsu. Pertsona ongileak ziren. Jendea sendatzeko balio zuten, eta hortik enfokatu dut pertsonaia. Landa eremuko kutsua emanez, baina, aldi berean, aspaldiko balore tradizionalak gorai patuz.

## **Zein mezu eman nahi izan duzu ipuin honekin?**

Gehienbat euskara dela gure hizkuntza eta, hortik kanpo, baditugula gure ohiturak, dantzak, ipuinak.... Ipuinaren barruan agertzen da Ikaznek nola eskola bat sortu zuen, hizkuntza hobetzeko, herriko ohitura eta ohitura zaharrak, ipuinak,... biltzeko. Jendea eskolara joaten hasi zen, eta oso gustura ibiltzen ziren. Eta, haurrei zuzendutako mezua da, Ikazneren euskara hori mantendu beharko genukeela. Beste hizkuntzak jakitea ona da eta, berez, beste hizkuntzak ez dira etsaiak, baina gurea mantentzea eta gure ohiturak mantentzea ere garrantzitsua da.

## **Erraz idatzi duzu ipuina?**

Bai, oso erraz atera zitzaidan. Enkargua eman zidatenean ia sortu nuen Ikaztegieta oinarritutako pertsonaia. Euskaldunon hizkuntza eta ohitura sano horiek transmitituko dizkigun pertsonaia hori. Pixka bat iraun dezatela luzaroan. Modernismoa ukatu gabe eta zibilizazioak dakarrena ukatu gabe, baina lehendik datorkiguna preziatuz eta mantenduz.

## **Oraindik ez duzu izan aukerarik herriko haurrekin egoteko. Gustatuko litzazuke haiekin elkartzeara?**

Polita izango litzateke, bai, zer sentitu duten jakitea. Ez baitakit zer sentitu duten edo ezer sentitu duten. Polita litzateke, ezagutzea, zerbait eragin ote dien, edo nik ekarpenik egin diezaiekedan, azalpen batzuekin-edo.

## **Liburuak zein ibilbide egitea gustatuko litzazuke?**

Umeei ipuina gustatu baldin bazaie, gure herriko pertsonaia tipiko baten moduan hartzearena polita izango litzateke. Aspaldiiko emakume jakintsu, sorgin edo nahi duten moduan har dezatela, eredu bezala; nolabait bultzako dituen gure ohiturak, gure bizimodu sanoa eta gure hizkuntza mantentzera, nahiz eta beste hizkuntzak eta ohiturak ikasiko dituzten. Baina, Ikazne izan dadila bultzada bat, gure herriaren esentziari eusteko. Horretarako balioko balu, positiboan izango litzateke.





## Ikasleen begietatik eta irudimenetik hartuko du gorputza Ikaznek

**I**kaztegieta Herri Eskolako bigarren pisuan hartu dute TOLOSALDEKO ATARIA. Sorginkeria usaina dario gelari. Sendabelarrak lantzen ari dira ikasleak, eta horiekin ukenduak egiten ikasten ari dira. Hortik ere badu Ikaznek. Lapiko artera gerturatu dira, ikasleen ordezkari moduan, Saida, Danel, Markel eta Ziortza. Ipuina gustatu zaiela kontatu dute, eta aurrerantzean gogoan izango dutela; baina, tartean, bada kontuan izango ez duela aitortu duen baten bat.

Ipuina horrela laburbildu dute ikasleek: «Ikaztegieta bizi zen neska bat zen, eta ikazkina zen. Gaztea zenean, emakume batek erakutsi zion sendabelarrekin lan egiten. Ondoko herrietatik jendea etortzen zitzaion ukenduak-eta eskatzera. Bestetik, euskaraz, ikazkinekin kantuak ikasten ibili zen. Animaliekin hitz egiten zuen, txoriekin eta katarriekin, beti euskaraz».

Aho batez onartu dute Ikaznek darabilen hizkuntza euskarara dela, eta guztiek ulertzen diotela. Beraien artean, ordea, batek bakarrik onartu du euskaraz bakarrik hitz egiten duela.

Zein mezu jaso duten galdetzean, hauxe laburbildu dute: «Egun batean dotore jantzita jaitsi zen Ikaztegieta, eta heldu bat eta ume bat erdaraz hizketan ari zirela konturatu zen Ikazne. Orduan, berak Ikaztegieta euskaraz hitz egitea nahi zuen, eta haserretu bezala egin zen».

Bi urtetik 12 urtera bitarteko guztiek sorgin bat marraztu dute. Ile luze edo laburrekin, txapelarekin edo gabe; erratza du baten batek eta, besteren batek dio, Euskal Herriko sorginen modukoa irudikatu duela. Katagorriari jana ematen ere marraztu dute.

Txikienetatik hasi eta gela guztietan, ikasle bakoitzak bere marrazkia egin du.

# TXIKIEN PROIEKTU HANDIA

Juantxo Zeberioek haurrak protagonista dituen 'Xomorroak' diskoa kaleratu berri du. Hainbat kolaboratzaileen laguntza izan du horretarako, besteak beste, Donostiako Orfeo Txiki eta Gaztearena, eta Et Incarnatus orkestrarena. Gaur, 20:30ean, aurkezpen kontzertua emango dute Leidorren.

19



Hainbat kolaboratzaile izan ditu Juantxo Zeberioek 'Xomorroak' diskorako. ATARIA





Donostiako Orfeoi Txikia eta Gazteak ere parte hartu du diskoan. ATARIA

### Irati Urdalleta Lete

**A**spalditik zuen amets bati jarraituz, *Xomorroak* diskoa kaleratu du Juantxo Zeberio, hainbat laguntzailerekin batera. Besteak beste Donostiako Orfeoi Txikia eta Gaztea, Et Incarnatus orkestra eta beste hainbat kolaboratzaile izan ditu ondoan. Konposizioak, moldaketak eta zuzendaritza musikala, berriz, Zeberioenak berarenak izan dira. «Niretzat, talde bat baino gehiago, proiektu bat da», azpimarratu du.

Disko hau grabatzeko prozesua ez zen atzo goizean hasi. Zeberioen haurrak Laskorain Ikastolako abesbatzan hasi ziren kantari, duela hainbat urte. Orduan, beraiantzako abestiak konposatzen nahiz entsegu eta kontzertuetarako idazten hasi zen Zeberio. «Orain, pixka bat kozkortu direnean, banau-

« Askok ibili izan naiz jazz munduan eta pop herri kantariekin. Beraz, egin ditudan kantuak nire moldekoak dira. »

kan gogoak kantu horiek guztiak bildu, eta ziklo horri itxiera moduko bat emateko», azaldu du.

Helburu horrekin, haurrentzako konposatu zituen abesti guztien partiturak bildu eta txukundu egin behar izan ziotuen. Gainera, hainbat moldaketa ere egin behar izan ditu orkestrarentzako, abesbatzarentzako nahiz laukoteentzako egokitzeke. Diskoa osatze aldera, beste hiruzpalau abesti

ere konposatu ditu. Zeberio egindako abesti horiez gain, hainbat euskal katuren bertsioak ere badaude; Ken Zazpiren *Gernikan* eta *Ilargia* edo Zea Maysen *Negua joan da ta*, esaterako.

Grabaketa lanek, berriz, ia urtebete iraun dute, hain zuzen ere, 2018ko martxoan hasi eta azaroan edo abenduan amaitu baitzituzten. Azkenik, urtarrilean nahasketak egin, eta orain, iritsi da lan horren guztiaren emaitza islatzen duen diskoa plazaratzeko momentua. Izan ere, dagoeneko prest dago hamaika kantuz osatutako Zeberioen laugarren diskoa.





*Xomorroak* deitzen da lan horren guztiaren emaitza. «Diskoarena, berez, kantu baten izena ere bada», azaldu du Zeberio. Karlos Linazasoro idazle eta poetak egindakoak dira, diskorako Zeberio sortutako kantu berrien letra gehienak. Azala, berriz, Alberto Letamendi margolari eta eskultoreak egindako koadro bat da. Gaur egungo gizarteari buruzko mezua daukala azaldu du Zeberio. Izan ere, jendea ikusten da, goiko aldetik, zirkulu moduko batean, eta xomorro itxura ere badaukate. «Askotan, umeei ere horrela deitzen diegu, eta iruditu zitzaidan hitz horrek elementu guztiak hartzen zituela, eta ondo kondentsatzen zuela, izenburu bezala, diskoan topa daitekeena», azaldu du Juantxo Zeberio.


Umeeek protagonismo handia izan dute diskoa grabatu eta plazaratzeko prozesu guztian: «Ez da hainbeste haurrentzat egindako disko bat, baizik eta haurrekin egindako disko bat», zehaztu du Zeberio. Hala ere, abestiak umeei naturalki ikasi eta kantatzeko modukoak direla pentsatzen du.

Diskoa Zeberio berak entzuten duen musikaren isla ere

badela dio: «Asko ibili izan naiz jazz munduan, eta pop herri kantariekin. Beraz, egin ditudan kantuak nire moldekoak dira». Gainera, orkestra bat ere badago, eta baita bateria, pianoa, saxoa eta baxua ere. Horrela lortu dituzte diskoan islatzen diren estilo desberdinak: afrikar koloreko kantuak; pop abestiak; eta rap bat ere bada, Glaukoma taldeko Juantxo Arakamak kantatutakoa.

Estilo desberdin horien artean, abesbatzek presentzia handia daukate: «Beti eduki izan dut hanka bat abesbatzen mundu horretan. Izan ere, anai bat zuzendari dut, eta gurasoak ere Tolosako abesbatza lehiaketan ibiltzen ziren».

*Xomorroak* izango da Zeberioaren ibilbideko laugarren diskoa. Hain zuzen ere, *Umama*, *Umama 2* eta *Eguberri Umama* atera zituen aurretik, helduen abesbatzekin. Orain haurrei eta gazteei eman die protagonismoa. Horretarako, Donostiako Orfeoi Txikiaren eta Gaztearen parte hartzea izan dute. Zeberio azaldu duenez, gustura aritu da beraiekin lanean: «Haurrekin lan egitea esperientzia ederra da, ez daukatelako tranparik. Abesti bat gustatzen bazaie gustura kantatzen dute, eta, ez bazaie gustatzen, ez



hainbeste». Lan egiteko «zoragarria» izateaz gain, «erronka» bat ere izan dela azaldu du Zeberio. Gainera, umeez benetako esperientzia bat bizitzea ere nahi izan du: «Haurrekin lan egiterakoan, gauzak ez dira erdizka egin behar. Hau umeez egindako disko eta proiektu bat da, eta oso goxoa baina kalitate handikoa izatea bilatu dugu», gaineratu du.

Abesbatzetatik aparte ere egin du bidea Juantxo Zeberio, hainbat esparrutan ibiltzea gustatzen baitzaio. Besteak beste, Benito Lertxundirekin eta Maddi Oihenartekin aritzen da, baita hari orkestretan eta jazz koloreko edo salsako taldeetan ere. Diskoko gainontzeko parte hartzaileekin ere egin izan du lan aurretik. Et Incarnatus hari orkestrako zuzendaria du anaia, eta Zeberio berak ere parte hartu izan du bertan, pianoa joz. «Orkestrako parte sentitzen naiz, hamaika kontzertu eta proiektutan elkarrekin ibili izan garelako». Orfeoi Txiki eta

**«Oso kontzertu beroa eta hunkitzeko egokia izango da, eta zuzenekoek daukaten xarma hori izango du»**

Gaztearekin, berriz, ez du zuzenean inoiz lanik egin izan, baina beste guztiarekin bai: «Tenporako Hasier Oleagarekin eta Itsaso Etxebesterekin aritu izan naiz, eta Amaiur Cajaravillek kontrabaxua jotzen du Benito Lertxundirekin».

Gainera, Gorka Benitez, Ion Arruabarena edo Antton Telleria ere izan ditu ondoan, haurrekin egindako beste proiektu batzuetan. «Denekin harreman luze eta emankorra izan dut», baieztatu du Zeberio.

### Leidorreko kontzertua

Aurretik egindako lan horrek guztiak fruitua eman berri du: *Xomorroak* diskoa. Gaur emango dute lehenengo aurkezpen kontzertua, 20:30ean, Leidorren. Horretarako, bertan izango dira, Itsaso Etxebeste baxuarekin, Ion Arruabarena eta Gorka Benitez saxoarekin, Antton Telleria bateria joz, Donostiako Orfeoi Txiki eta Gazteko kideak kantua, nahiz Et Incarnatus orkestra.





Juantxo Zeberio arduratu da konposizioez, moldaketez eta zuzenketez. ATARIA

Kontzertua, batez ere, diskoa izango dela baieztatu du: «Diskoko elementu guztiak egongo dira bertan, eta sorpresaren bat ere bai». Hala ere, desberdintasun txikiren bat ere izango da. Izan ere, orfeoi gazteak abesti bat edo bat eta erdi bakarrik kantatzen ditu diskoan, eta, iruditzen zitzaieenez horretarako bakarrik etortzeak ez zeukala zentzurik, beste bizpahiru abesti ere kantatuko dituzte. «Diskoa etxean jartzen duzunean, goxo entzuteko moduko musika dela pentsatzen dugu». Disko batean islatzea zailagoa den emozio puntu ere izango duela dio Zeberio. Horretarako, diskoko parte hartzaile guztiak izango dira kontzertuan: «Gutxitan egoten da aukera orfeoi txikia, orfeoi gaztea, orkestra... zuzenean batera ikusteko. Uste dut oso kontzertu beroa eta hunkitzeko egokia izango dela, eta zuzenekoek daukaten xarma hori izango duela».

**«Umeekin egindako disko eta proiektu bat da, eta oso goxoa, baina kalitate handikoa izatea bilatu dugu»**

### **Etorkizunera begira**

Proiektuak jarraituko du, Tolosako aurkezpenetik aurrera ere. Izan ere, asmoa dute, lehen aurkezpena egin ondoren, Euskal Herriko herrialde bakoitzean bertako abesbatzaren batekin emanaldi bat behintzat egiteko. Hiriburuetan

proiektua aurkeztu nahi dute, baina, beti abesbatza bera erabili beharrean, Juanxo Zeberiori iruditzen zaio, interesgarriagoa dela lekuan lekukoak erabiltzea. «Lurralde bakoitzeko abesbatza indartsuenekin lanean ari gara, proiektura batu daitezten». Momentuz, Tolosako aurkezpena soilik dute lotuta. «Gauza handia da eta lana emango digu», gaineratu du. Bes-

tela, Benito Lertxundirekin kontzertuak ematen ere jarraitzen du eta, udazkenean, pare bat eskainiko dituzte. Tenporarekin ere, udazkenean disko berria grabatu, eta hurrengo urtean aurkezten hastea espero du. Proiektu ugari ditu aurrean, beraz, Zeberio.



# Gure planeta hondatzen ari da!

**B**erotze globalaren datu batzuk oso ondo ezagutu behar dira, planeta suntsitzen ari garela-ko. Horrez gain, egunerokoa, nahigabe egiten ditugun ekintza guztien ondorio da. Horregatik, hiru azpi-gai esanguratsu jorratu dira erreportaje honetan: definizioa, eboluzioa eta, azkenik, kausa esanguratsuenak.

## Berotze globala, gure fenomeno esanguratsua

Fenomeno hau lurrazaleko, aireko eta ozeanoetako batezbesteko tenperaturaren igoera da, azken urteotan nabarmen areagotu dena, berotegi efektuarengatik, bereiziki.

Alde batetik, 1950etik, zenbait fenomenok efektu arinak sorrazazi dituzte tenperatura igotzean, esate baterako, sumendiek eta eguzki-izpien noranzko aldaketak. Izan ere, zenbait elkarte zientifiko eta zientzi akademia ondorio honekin bat etorri arren, zientzialari asko ez datoz bat azterturiko berotzearen argudio garrantzitsuenekin.

Bestetik, tenperaturaren igoerak itsas-mailaren igoera ere ekarri, eta eurariaren maiztasuna eraldatuko du, basamortuen hedapena eraginez. Modu berean, klimek muturretara joko dute, uztak aldatuko dira, glaziarrak urtuko dira eta flora eta fauna baldintzatuko ditu, espezie asko desagertuz.

## Gertakari hau geldiarazten ala jarraitzen ari gara?

Hasteko, esan beharra dago gero eta latzagoak izango direla bizi-baldintzak, Lurrean. XX. mendetik gaur arte erritimo bizian bizkortu den bilakaeragelditu ezean, azken muturreraino iritsiko bagina, bizi ezina bihurtuko litzateke gure planeta maitea.

Gainera, nazio batzuek ez dituzte sinatu Kiotoko protokoloa eta ingurumenari buruzko beste akordio batzuk; adibidez, mundu mailan gehien kutsa-



JODY DAVIS / PIXABAY

tzen duen herrialdeak, Amerikar Estatu Batuek. Horrek guztiz galarazten digu arazo larriari ikuspegi orokor batetik aurre egin ahal izatea.

## Honen arrazoi nagusia, gizakiaren eragina

Segidan, gizakiak eragindako kausak dauzkagu. Zientzialari gehienek (%95), aditu eszeptiko gutxi batzuek izan ezik, uste dute berotze globala CO<sub>2</sub>arekin, beste berotegi-gasen isurtzeekin eta giza ekintzekin oso lotuta dagoela. Honela pentsatzen du IPCC-k ere, bere hirugarren txostenean, 2001ean, eta bere bosgarren txostenean, 2015ean.

Gaur egun, ikatza erabiltzen duten energia-instalazioek, ibilgailu eta lan-tegien jarioek eta horiek guztiek sortutako beste hainbat jarduerak 22.000 milioi tona CO<sub>2</sub> sortzen dituzte. Era berean, nekazaritzak eta abeltzaintzak, gas naturalak eta arroz larreek 250 milioi tona metano produzitzen dute. Jakinaenez, bi gas horiek, ur-lurrunare-

kin elkartuta, berotegi-gasnagusiak izaten dira.

## Fenomeno honen arrazoi nagusia natura ere bada!

Halaber, faktore naturalak ere izan daitezke klima-aldaketaren sorreraren kausak, arazoari garrantzia kentzen dioten eszeptikoan iritzian. Egur astiek eta tenperaturek, berotegi efektuko gasez gain, beste eragile batzuen ekintza alda dezakete. Hots: Lur planetak noiz-behinka izaten dituen orbita aldaketengatik, hau da, antzematen duen erradiazioa iraunkorra ez denean, eguzkiaren orbanak anitzagoak direnean eta erradiazio gehiago igortzen dutenean.

Bukatzeke, uste dut nahiko argi gertatu dela zerbait egin beharra dagoela, eta azkar gainera, bestela, Lurra planetaren ekosistema guztiak basamortuko ekosistema moduan utziko ditugu. Orduan, badakizue: gure planeta zaindu behar dugu!

# Tituluen bideetik

**Z**enbat denbora beharko dut titulua ateratzeko?». Egun, euskara irakasleoi jada ez zaigu arraro egiten horixe izatea *kaixo, txape-la* eta *sagardoa* ozta-ozta dakizkien ikasle hasiberriak egiten duen lehen galdera, klasera sartu baino lehen kasik (hasiera mailak ere egiazta-tzen dira orain). Ikasleen profila aldatu da, hala diote beterranoek, eta zenbaitentzat titulua ateratzeko akademiak dira euskaltegiak.

Horrek zerikusia izan lezake, batetik, jendartean nagusi den *titulitis* edo tituluak pilatzeko joerarekin. Kapitalismo basatiaren diskurtsoak lorpen eta porrot indibidualak ditu ardatz, eta berrikuntza eta eraginkortasuna bezalako hitz politen azpian, prekaritatea eta lehiakortasuna ezkututzen dira maiz. Ez dago samur lan-merkatua, ez, eta hor gabiltza karrera, ikastaro eta masterrak pilatzen, presaka eta erdizka bada ere, paperak edukitzeko, behinik behin (eta, azkenean, zer eta, ezer funtsezkorik ez dakizunaren sentsazioarekin geratzeko. Marina Garcesen aipu bat datorkit gogora, Gorka Bereziartuak aipaturikoa, gure belaunaldiaren erradiografia polita: «Dena dakigu, baina ezin dugu ezer egin». Baina, tira, hori beste upel bateko sagardoa da).

Dena den, agerikoa da titulu kontuak

**(...) eta hemen doa gaurko Pelloren egia, Euskal Herrian euskara ez dela beharrezkoa, eta bai, aldiz, bi erdarak, eta horixe dela, azken finean, gure ezinen puntaren puntan dagoena, eta ez ustezko zailtasun edo erakargarritasun falta**

euskararekin lotuta daudenean, beste-lako kontuek ere baldintzatzen dutela auzia. «Beste kontuak» esanda, jakina, euskararen egoera anormalaz ari naiz, gure mendekotasun egoeraz, gure herrian atzerritar izateaz. Esan nahi baita, eta hemen doa gaurko Pelloren egia, Euskal Herrian euskara ez dela beharrezkoa, eta bai, aldiz, bi erdarak, eta horixe dela, azken finean, gure ezinen puntaren puntan dagoena, eta ez ustezko zailtasun edo erakargarritasun falta. Edo, Humpty Dumptyk Aliziari esan zion bezala, nork agintzen duen, *horzion koxka*. Inork ez dizu gaztelania titulu bat eskatuko: pasatu beharreko

proba guztiak gaztelaniaz egingo dituzu, eta kito. Horrelaxe inposatzen da «normaltasuna» botere-harreman guztietan, natural-natural, iraganeko eta egungo asimilazio-prozesu guztiei ez ikusiarena eginda, eta askatasunaren izenean, gainera. Gaur, euskaldunok ez dugu geure hizkuntza beharrezko egiteko botererik, baina gure eskubideak errespetatu daitezela, behintzat, eskatzen dugu noizean behin: arta gaitzabela euskaraz ospitalean, polizia autonomikoren batekin ika-mikaren bat izanez gero berdin... Horrelako kontutxoak. Eta, hara! Orduan inposatzaile bihurtzen gara, itxiak eta kaskagorrrak. Mila eta bat titulu eskatzen diren garaietan, euskara-eskakizuna izango da saltsa gehien sortzen duena, auziari «kolore» pixka bat ematen dieten aldi-aldiko intoxikazio kanpaina eta guzti (oroituko zarete, akaso, alderdi sozialistaren spot lotsagarri harekin).

Eztabaida hori euskaltegietan ere azaleratzen da, eta muturbeltzak ikusi eta kexei erantzutea ere tokatzen zaigu batzuetan. Eta zenbaitetan, ai, euskaltzale edo euskalzulo izanagatik ere (Ifiigo Seguiolaren baimenarekin), ulertu

ere ulertzen ditugu, gure bihotzñoa baitugu; ez dugu inoren bizitza zaildu nahi, eta ez da erraza justifikatzea, demagun, langile bati idazlan koherente eta zuzenak egiteko eskatu, baina bere gainetik dagoen tipoa, bere hirukoitza irabazten duena, lasai ederrean egotea euskarari usainik ere hartu gabe. Eta noizbehinka gu ere aspertzen gara, errepika eta klizez beteriko kexa-gutun aspergarriak idatzarazteaz, eta, ameslari jarrira, geure buruari galdetzen dio-gu ez ote litzatekeen hobe hautaproba eta abarrak euskaraz egitea, eta denbora gehiago eskaini ahal izatea hitzekin lasai jolasteari; edo zergatik ez garen

munduko hiritar jai (hizkuntza eta herri hegemoniko bateko munduko hiritar, noski, besteok beste planeta batekoak gara, antza).

Nolanahi ere, ikasteko edo hobetzeko asmo hutsez datozen ikasleak ere izaten ditugu maila guztietan, edo bi motibazioak dituztenak: titulua atera nahi dute, baina baita euskaraz egin edo irakuru

ri ere. Poetak zioen gisa, horiek dira ezinbestekoak, erabileran eragin deza-ketenak, zaindu beharrekoak. Euskalgintzak urteak daramatza aldarrikatzen euskara ikasteak doakoa beharko lukeela, eta, bide horretan Eusko Jaularitzak urrats mantso eta txiki batzuk eman dituen arren, doakotasuna egiaztatzearekin lotzen ari da; titulua lortze-arekin, alegia. Ez dut esango titulua ateratzek meriturik ez duenik, aitortu behar ez denik; alabaina, euskara ikastea gauza bat da, eta bestea homologazioa. Ez dute denek hori nahi, ezta behar ere, eta ez genituzke bestelako helburu, nahi edo erritmoak dituzten ikasleak bazter utzi behar. Batez ere, euskaltegietatik, tituludunetz gain, euskaldun aktiboak ateratzea badugu helburu.



**IDOIA BONGOETXEA**  
EUSKARA IRAKASLEA

# Agenda

## OSTIRALA MAIATZAK 31

### AMASA-VILLABONA

**17:00.** 73. Behar Zana festa, txupinazoa bolatokian. 17:30. Bola Tiraldia (haur eta helduentzat) 18:00. Sagardo dastatzea bolatokian (eguraldi txarra eginez gero Berdura plazan), eta buruhandi eta erraldoiak, Loatzo musika eskolako Geronimo dultzaina taldearekin batera.

### BERASTEGI

**17:00.** Toka txapelketa Gaztainondo elkartean.

### BERROBI

**10:00.** Berrobiko eskolako ikasleen musika eta antzerki emanaldia.

**19:00.** Presoen aldeko elkarretaratzea plazan.

**19:30.** Pintxo-potea herrian.

### IBARRA

**22:00.** Ibarako V. Mus Txapelketa Herrikoa, Gaztelubide tabernan.

**22:00.** Loatzo musika eskola + Alur dantza taldea, Uzturpe ikastolako frontoian, ikastola diruz laguntzeko. Sarrera: borondatea.

### IRURA

**17:00.** Zientzia tailerra haurrentzat, plazan edo frontoian, Mad Science taldearen eskutik.

### TOLOSA

**17:15.** Sukaldaritza tailerra gaztetxoentzat, topagunean. Adina: 12-17 urte.

**20:30.** *Xomorroak* ikuskizuna, Juantxo Zeberioen zuzendaritzapean, Donostiako orfeoi txiki eta gaztearekin eta Et Incarnatus orkestrarekin.

**22:30.** Kontzertuak Bonberenean: Lemy River eta Honolulu. Sarrera: 8 euro.

### BISIGU ETA SAGARDOAREN FESTA

**20:30.** Sagardoarekin maridaje afaria, Txinparta elkartean (27 euro).

### ZIZURKIL

**15:00.** Ipuin solidarioak Pedro Mari Otaño ikastetxean.

**16:00.** Nigeriako eta bertako janari



## KAZETARIA GALDERAK ERANTZUNEZ

Galtzauni Euskara Taldeak Sormenetik egitasmoaren ale berri bat eskainiko die, herri-tarrei, bihar goizean. Ohi bezala, Zerkausi azpiko txokoa izango da, eta Garbiñe Ubeda izango da protagonista; Yurre Ugarte izango du elkarrizketatzaile. **IRATISAIZAR**

dastatzea, Joxe Arregi plazan. 16:00-18:30, Tailerra Urkamendi elkartean. 19:00, Pintxo-potea Joxe Arregi plazan.

## LARUNBATA EKAINAK 1

### AMASA-VILLABONA

**10:00.** 73. Behar Zana festa, VIII. Xake Txapelketa (egoitzan). 10:00. Pilota eskolako haurren txapelketako finalak. 14:00. Pilota eskolako haurren bazkaria, elkartean. 16:30. Pilota jaialdia: 1) Neskak palaz: Maria Hoyos-Xandra Boada / Ane Maiza-Irati Otaegi2) Mutilak zesta-punta: Lertxundi-Andonegi / Goitia-Manzisdor3) Mutilak eskuz binaka: Lizaso-Urbieto / Maiz-Esnaola 20:15. Bazkide afaria. 23:15. Behar Zana danborrada.

**12:00.** Segundo Montes eta Aiztondoren arteko senidetze egunaren hasiera, harrera instituzionalarekin, Amasa-Villabonako udaletxean. 13:00ean herritarren ongietorria Berdura plazan. 14:00etan herri bazkaria Berdura plazan.

### AMEZKETA

**19:30.** Alaitz Artolaren piano kontzertua, kultur etxean.

**21:00.** III. Bertso afaria Ugarten. Amuarra

elkartean, Unai Mendizabal eta Julio Soto bertsolariekin. Maialen eta Lorea Senperena trikitaliak ere ariko dira.

### IBARRA

**11:00-13:00.** Arroparen kolektibizazioa. Ibarako KZgunera bertarako beharko da, arropa hartzera edo uztera.

**12:00.** Lauburu eguna, kadeteen partida. 13:30-14:30, Kalejira. 14:30ean, bazkaria plazan, eta 19:00etan kadeteen partida.

### LIZARTZA

**12:00.** Erromeria eguna, dantza emanaldia: Oinkari dantza taldea (Amasa-Villabona), Udaberri dantza taldea (Tolosa), Otsolar dantza taldea (Lizartza). 13:00ean, plaza dantzak herritar guztientzat. 14:30ean herri bazkaria eta, ondoren, kantu saioa herriko musikarien eskutik. 18:00etan erromeria: Gari eta Iñaki. 19:00etan sagardo eta pintxo dastatzea.

### TOLOSA

**09:30.** Ekosfera eguna. Eloseg parkera bisita, hango txoriak ikusi eta entzuteko, Mikel Elosegiren eskutik.

**11:00.** Ekosfera eguna. Irratsaioko kolaboratzaile eta parte hartzaileen eskutik, ekologiari, kimikari, fisikari, ingurumenari eta kontsumo-antikontsumoari buruz: Izan gaitzen



baikor, utz dezagun pesimismoa garai hoherako. Saioak irauten duen bitartean, musika eskolako ikasleek irratsaioko sintoniak interpretatuko dituzte. irratsaioko

**10:30.** Flavio Bänderla: pop mistiko esperientzia, Anandi yoga eskolan.

**12:00.** Sormenetik: Garbiñe Ubeda, Zerkausi azpia. Garbiñe Ubeda kazetari eta idazle tolosarrak bere ibilbidearen errepassoa egingo du Yurre Ugarteren galderei erantzunez. Hodei Yañez eta lone Gorostazu ere ariko dira.

### BISIGU ETA SAGARDOAREN FESTA

**11:30-14:30/19:00-21:30.** *Sagardoak ere baduelako elegantziazatik*, Tolosaldeko sagardotegietako sagardoak eta pintxoak dastatzeko aukera, Zerkausan.

**11:30.** Bisita gidatuak: 38 sagardotegi Tolosako Alde Zaharrean. Ondoren, dastatzea.

**14:00 eta 21:00.** Bisigu menua, Orio estilora, Zerkausan, Katxiña eta Xixario erretegietao parrillariak prestatuta (55 euro).

### ZIZURKIL

#### EUSKAL JAIA UGARE AUZOAN

**11:00.** Buruhandiak trikitiaz girotuta.

**11:30.** Haurrentzako jolasak.

**12:00.** Txalaparta.

**12:30.** Halterofilia erakustaldia.

**13:30.** Patata tortilla lehiaketa.

**14:30.** Herri bazkaria.

**18:00.** Euskal dantzen erakustaldia.

**18:30.** Sagardo dastatzea.

**21:30.** Bokatak afaltzeko.

**23:00.** Kontzertua Estarlus taldearen eskutik. Jarraian, disko festa.

## IGANDEA EKAINAK 2

### AMASA-VILLABONA

**09:00.** 73. Behar Zana festa, diana Loatzo musika eskolako Geronimo dultzaina taldearen eskutik. 11:00etan, errebote partida: Behar Zana-Txost. 14:30ean, gonbidatuen bazkaria elkartean.

### TOLOSA

**08:00.** VI. Abraham Olano zikloturista martxa, Usabal kiroldegitik.

**09:30.** Eskolarteko I. Boulder Txapelketa, Usabal kiroldegian. 13:30-14:30, diploma banaketa. Alebinak, Infantilak, Kadeteak.

**14:00.** Tolosaldeko trikitilarien topaketa, eskualdeko trikiti mugimendua indarberitzeko asmoz, Benta Aldea jatetxean.

**18:30.** Txotxongilo ikuskizuna, Topic zentroan, Tanxarina konpainiaren eskutik: *La gallina azul*.

### BISIGU ETA SAGARDOAREN FESTA

**14:00.** Bisigu menua, Orio estilora, Zerkausan, Katxiña eta Xixario erretegietao parrillariak prestatuta (55 euro).

## ASTELEHENA EKAINAK 3

### ALKIZA

**19:00.** Etxean energia aurrezteko saio praktikoa.

## ZINEMA

### 'GRACIAS A DIOS'

Larunbata (19:30 / 22:00)  
Astelehena (20:30)



**kon2natu**  
erreflexuen aurkako  
graduatuak  
+  
eguzkitako graduatuak

**99€**

Gure betaurreko guztiak  
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 17/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23  
Tel.: 943 69 84 70  
**TOLOSA**

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



## Diharduenak dagoenari



HARITZ MUJICA

*Plazan farola okerra dago, paseoan zakur kaka! Basurarena? Lotsagarria! Futbol zelaian aldapa! Dihardutenak kritikatzeari daudenen jarrera da ta... baina udaletik pasa ezkerodena banaka-banaka ahoa itxiz joango lirake pixkanaka-pixkanaka.*



## Doinua

Komenizaigun ixtoria bat

# Pasatu dira hauteskundeak

28

**A**pirila eta maiatza bi hilabete luze gertatu zaizkigu. Egia esan, badut emaitza politiko guztien berri, baina, zer zaila analisi politiko zehatza egitea. Tolosaldean EH Bilduren gorakada garbia ikusten dut. EAJ ez hainbeste, agian zerbait jaitsi, batez ere, udal hauteskundeetan. Gobernagarritasunari begira, bi alderdien sendotasuna ikusi dut: EAJ, Eh Bildu eta, oso atzetik, PSE-EE. Alderdi abertzaleek marka hautsi dute, gorantz joan dira. Europan, Gipuzkoan eta udalerrietan politika sozialak, orekak eta errealismoak astindu ederra eman dute. Poztu naiz. Iruditzen zait politikak beti herriaren

**Denon esku egongo da, gure udalek, foru aldundiak eta Europako Legebiltzarrak herriarrei eskubide politiko eta ekonomiko guztiak bermatzea, eta elkarrekiko gobernantza hori bultzatzea, eta gure euskal gizartea egonkortzea**

zerbitzura egon behar duela. Ez naiz azti bat, baina, Nafarroan *laukoaren* etorkizuna oso motel ikusten dut; gure euskal autonomian, abertzaleen garaipena, eta espainiar eskubia porrotera joan dela. Badirudi hemendik doala argazki politikoa. Hala eta guztiz ere, bizitza aurrera doa, eta egunerokotasuna normaltasunean sartuko da.

Politikak herriarren premiak, nahiak eta helburuak islatu behar ditu; are gehiago, larriagoak diren heinean. Egia da, herriarren premia horiek gauzatzen diren unean, ezinbestean, beren partzialtasuna edo partikularitasuna izango dutela. Baina, halaxe izanda ere, praxis politiko egoki baten hierarkiak argi utzi beharko du, herriaren ona dela nagusitzen dena, arazoek konponbideei ematen zaien lehentasunean; arazo horiek ez baitira ez politikariak, ez haiek ordezkatzeko dituzten alderdienak, baizik eta gizarte edo erkidego politiko osoarenak.

Ez da hitz *ponpoxoak* erabiltzea, baina gizabanakoen eta gizarte kolektiboen iritzia publikoak lagundu behar luke gizartearen premia larrienak zehazten, aginpide publikoak esku har

dezan. Eta, hala, herria osatzen duten herritarren mesedetan, neurriak har ditzaten, herri horren zerbitzura egon behar baitute.

Denon esku egongo da, gure udalek, foru aldundiak eta Europako Legebiltzarrak herriarrei eskubide politiko eta ekonomiko guztiak bermatzea, eta elkarrekiko gobernantza hori bultzatzea, eta gure euskal gizartea egonkortzea. Ongizate gizartearen erronkak nagusiki zaindu behar dira; produktibitatea handitu, eskulan

galera berdintzeko. Badu bere garrantzia erronka sozialei aurre egiteak, udaletxeko atea gehiago irekitzea eta gure arduradun politikoak kalean gehiago ikusteak, eta ez bakarrik karpainaldietan.

Uste dut gizarteak ikusi behar duela politikagintza ona dela, Tolosaldeko edozein udal, Gipuzkoa eta Europan Batasuna errealtate eta proiektu onak direla. Zor publikoaren krisia piztear egon zela, baina hazkundea hobera egiten ari dela; garapen ekonomikoa eta soziala elkar loturik bultzatu behar baitira. Positiboa eta baikorra naiz. Bide onean ikusten dut Euskadi. Hala uste dut.



**JOXE AGUSTIN ARRIETA**  
ERRETIRODUNA

KOMIKIA NAIARA DELGADO PEREZ



## Alaitasuna kutsakorra da

29

**L**ehotik begira ari da, ditzosozko azken azterketa zuzentzen. Hori amaitzean, ikasle bakoitzari sartu behar dizkion nota eta ohar-txoetan pentsatzen dabil jada. Gurasoekin elkartzeak ere urduritasun puntu bat sortzen diola onartu behar du. Berzikiki, komunikatzen dena hobekuntzara bideratuta dagoela ulertzen ez dutenengatik.

Bat-batean, eskolako festa eta ikastetxetik doazen ikasleen agurra dartzeko burura. Amaierak dakarren tristura, eta agurrarekin gustura geratzek duen garrantzia. Ah, eta proiektua ere ezin albo batera utzi. Horren ondoren kurtso amaierako irteerak hartuko du lekua, urtea borobiltzeko asmoz. Ene...

Eguneko lehen hiru saioen eta atariko zaintzaren ondoren, irakasle gelan bildu gara. Kurtso amaierak dakarren lan zama eta emozio festa pil-pilean daude jada. Ez dakit bilkurak, urduritasun puntuaz eta lan gehigarri baten

pertzepzioaz gain, zerbait gehiagorako balio izan ote duen. Izan ere, ikasleei emozioak kudeatzen irakasteko elkarretaratze batean, askok gaindituta ez daukagun ikasgaiak irakastea egokitzen ari zaigula ohartu naiz. Eta, egiten ez dakiguna, ezingo dugu sekula egoki transmititu.

Etengabe mahai gainera ateratzen da proposamena: ikasleek emozioak kudeatzen ikasi behar dute, eta hori txiki-txikitik identifikatzen jakinez gero, hobe. Izan ere, izugarritzko oparria litzateke, identitatea sortzen doan heinean, euren emozioak

identifikatzeko gaitasuna izatea.

Tira, argumentua, zoragarria. Edozein konbentzitutiko lukeena. Txalagarria. Baina, agian, irakasleok ere geure burua ezagutzetik zein formatzetik hasi behar genuke. Bestela, ea nola transmititzen diozun ikasle bati lasaitasuna, zureak egingo duela pentsatzen bi edo hiru aste daramatzazunean...

Goazen behingoz lanean hastera; oinarririk, produkzioa alboratzetik, lana masan egiteari uztetik. Eta, ikasle-irakasle elkarrekintzan, haur bakoitzak gugandik eta berarentzat eramatea nahi dugunetik.

Modu honetan, amets egiten duten irakasleak izango ditugu, haurrak bertan islatuz, eta etorkizun oparoago batean murgilduz.



**MADDI AMIANO**  
IRAKASLEA

**(...) agian, irakasleok ere geure burua ezagutzetik zein formatzetik hasi behar genuke. Bestela, ea nola transmititzen diozun ikasle bati lasaitasuna, zureak egingo duela pentsatzen bi edo hiru aste daramatzazunean...**



## EGURALDIA



### GAUR

Uda bete-beteko giroa aspaldiko partez. Erdi-mailako geruzetan sartuko den aire beroak tenperaturak asko igoaraziko ditu eta maximoak, eguneko erdiko orduetan, 28-30 gradu berotan kokatuko zaizkigu. Zeruan apenas ikusiko dugun hodeirik; ekialdeko haizearen laguntzaz eta giro eguzkitsuzaz gozatu ahalko da.



**IKER  
IBARLUZEA**  
EGURALDI  
MUTILA

### BIHAR

Uda beteko giroa eta bero handia. Haizeak hego ukitua izango du egun osoz, eta horrekin tenperaturak are gehiago igoko dira, bero sargoria eginez, Tolosaldeko txoko guztietan 30-32 graduak harapatuz, eta baztertu gabe lekurik be-roenetan gorago ere geratzea. Zeruari dagokionez, goi-hodeiren bat salbu, giro urdina nagusituko da egun osoz eta eguzkiak gogotik berotzeko aukera izango du.

### ETZI

Aldaketatxo batzuk izango ditugu. Goizean, oraindik, hego-haizea ibiliko da, eta giro bero eta sargoria izango dugu, non zerua urdin egongo den eta tenperatura maximoa, nahiz behereago geratu, oraindik 27-29 gradu berotan kokatuko den. Eguerditik aurrera, berriz, haizeak ipar-mendebaldera egingo du eta, horrekin, batetik, tenperaturak freskatu egingo dira eta, bestetik, hodeiak nagusitzen hasiko dira. Eguna amaitzerako hodeiek zerua estaliko dute. Bero pilaketagatik ezegonkortasuna areagotuko da, eta ezin da baztertu ekaitzen bat garatzea arratsalde-iluntze aldera. Hala ere, aukera txikia denez, ia egun osoz ateri eutsiko dio.

OSTIRALA  
31



IGANDEA  
02



LARUNBATA  
01



ASTELEHENA  
03



## IRAGARKI LABURRAK



### LAN ESKAINTZAK

**Komertziala.** Landanet enpresak komertzialak behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilerro eta formazioa enpresaren kontu. Bidali curriculuma [info@landanet.net](mailto:info@landanet.net) helbidera, edo deitu 943 3186 06.

**Etxeko lanetarako.** Tolosan etxerako lanak egiteko pertsona bat behar da. Deitu 688 88 82 07 zenbakira, eguerdian.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi [ataria@ataria.eus](mailto:ataria@ataria.eus) helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

## FARMAZIAK



### MAIATZAK 31, OSTIRALA TOLOSA

**Egunekoa.** Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. Telefonoa: 943 67 32 74.

### EKAINAK 1, LARUNBATA TOLOSA

**Egunekoa.** Eburne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

### EKAINAK 2, IGANDEA TOLOSA

**Egunekoa.** Marta Olarreaga Aramburu. Martin Jose Iraola ibilbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.

### EKAINAK 3, ASTELEHENA TOLOSA

**Egunekoa.** Eburne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

**EGUNERO GAUEKO  
GUARDIAKO FARMAZIA:**  
TOLOSA • L. Azpiroz Galartza.  
Amarotz auzoa, 9.  
Tel.: 943 67 5118.

## ATARIA IRRATIA



### OSTIRALA

**09:00. Pasahitza.** Iker Ibarluzearen eskutik eguraldia, solasaldi politikoa Begoña Tolosa (EA), Eneko Maioz (EH Bildu), Joxe Mari Villanueva (PSE-EE) eta Iñigo Cabiecesekin (Elkarrekin Podemos). Azken ostiraleko tarte eta Tolomendiren atala.

**11:00. Hamaiketako** Tolosako berriak.

**16:00. Zebrabidea** magazina.

**18:00.** Goizeko saioen onena.

### LARUNBATA

**10:00.** Trikitia.

**12:00. Hauspo artean.** Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin, trikitiari buruzko saioa.

**14:00. (H)ari naizela.** Bertsolaritzari buruzko saioa Imanol Artola Felix-ekin.

**16:00. Entzuteko jaiok.** Musika saioa.

**17:00. Kokondo.** Musika saioa Oskar Tenarekin.

**18:00. Entzuteko jaiok.** Musika saioa.

### IGANDEA

**10:00.** Asteak utzitako onena.

**16:00. Entzuteko jaiok.** Musika saioa.

**18:00. Entzuteko jaiok.** Musika saioa.

### ASTELEHENA

**09:00. Pasahitza** magazina. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, Agurtzane Belauntzaraneekin bidaia eta Aitor Mendiluze kale kantoitik.

**11:00. Hamaiketako** Alegialdeko berriak.

**16:00. Zebrabidea** magazina.

**18:00.** Goizeko saioen onena.

**20:00. Hauspo artean.** Trikiti saioa.

107.6 fm

www.ataria.eus

## 28 KANALA



### OSTIRALA

**13:30.** Gaurkoan Tolosalde

**12:30.** 1,2,3 Hemen da Miru

**17:30.** Gaurkoan Tolosalde

**21:30.** Gaurkoan Tolosalde

**22:00.** Izerditan (Skate)

**22:30.** Eskolarteko 31. Anzterki Astea Gernika Lumon

**23:30.** Gaurkoan Tolosalde



KATILUA \_\_\_\_\_

BOLIGRAFOA + KOADERNOA \_\_\_\_\_

BOLIGRAFOA + KOADERNOA + KATILUA \_\_\_\_\_

8 EURO

4 EURO

10 EURO

ATARIKIDEAK

10 EURO

6 EURO

14 EURO

BESTEAK

ESKURATU ZUREA ATARIAREN BULEGOAN  
SAN ESTEBAN 20, TOLOSA





Etxe barruko landareak | Loreontziak

# Egin ezazu berezi ZURE ETXE EDO BULEGOKO EDOZEIN TXOKO!

Zubitxiki, 17  
20150 Aduna /Gipuzkoa  
[www.adunagarden.com](http://www.adunagarden.com)



Aduna  
garden

